

**LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2022/2023 ikasturtea**

**LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ZIKLOAN  
BERTSOLARITZA ETA HEZKUNTZA  
UZTARTZEA IKASLEEN  
PROPOSAMENETATIK ABIATUTA**

Egilea: Eider Gallastegui Aguirrebeitia

Zuzendaria: Naia Eguskiza Sanchez

Leioan, 2022ko ekainaren 1ean

## AURKIBIDEA

1. Sarrera eta lanaren justifikazioa .....	1
2. Marko teorikoa .....	2
2.1. Bertsolaritzaren definizioa eta ibilbide historikoa .....	2
2.1.1. Zer da bertsolaritza?.....	2
2.1.2. Bertsolaritza historikoki: ibilbide historiko laburra .....	3
2.2. Bertsoa .....	4
2.2.1. Doinua.....	4
2.2.2. Neurria .....	4
2.2.3. Errimak/Oinak .....	5
2.3. Bertso eskola.....	6
2.3.1. Bertso eskolen sorrera.....	6
2.3.2. Zer dira bertso eskolak? .....	6
2.3.3. Gu ere bertsotan .....	7
2.3.3.1. Bertsolaritzaren curriculuma Lehen Hezkuntzan .....	8
3. Ikerketaren helburuak eta hipotesiak .....	8
4. Metodologia.....	9
4.1. Datuak jasotzeko metodologia.....	9
4.1.1. Lagina .....	9
4.1.2. Tresna.....	10
4.1.3. Prozedura .....	11
4.2. Datuak aztertzeko metodologia .....	11
5. Emaitzak .....	13
5.1. Emaitzak itemez item .....	13
5.2. Galderen arteko korrelazioak.....	16
5.3. Generoen araberako emaitzak.....	17
5.4. Ama hizkuntzaren araberako emaitzak.....	18
5.5. Ikasmilaren araberako emaitzak .....	19
5.6. Ikasleen ekarpenak.....	20
5.7. Sumarioa eta ondorioak .....	22
6. Proposamena/iradokizunak.....	22
7. Ondorioak .....	23
8. Erreferentzia bibliografikoak.....	25
9. Etika profesionala .....	26
10. Eranskinak .....	27
10.1. 1. eranskina .....	27
10.2. 2. eranskina .....	28
10.3. 3. eranskina .....	31

## LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ZIKLOAN BERTSOLARITZA ETA HEZKUNTZA UZTARTZEA IKASLEEN PROPOSAMENETATIK ABIATUTA

**Eider Gallastegui Aguirrebeitia**

UPV/EHU

Lan honen helburu nagusia Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan dauden ikasleek bertsolaritzari buruz duten interesa nolakoa den eta bertsoari buruz zein ezagutza eta aurreiritzi mota duten aztertzea da, bertsolaritza hezkuntzan aplikatu daitekeen edo ez ikusteko euren iradokizunetatik abiatuta. Horretarako, marko teorikoan egindako ikerketa zientifikoa eta bibliografikoa aintzat hartuz lan honetarako sortutako galdetegi bat erantzun dute Bizkaiko herri euskaldun bateko ikastetxe bateko hirugarren zikloko ikasle guztiek. Lortutako emaitzetan oinarrituta, ikasleek bertsolaritzarekiko interesa erakutsi dute eta gustuko dute bertsolaritza lantzea nahiz eta testuingurua ez izan bertsozalea. Gainera, ikasleek bertsolaritza hezkuntza formalean txertatzeko iradokizunak egin dituzte. Proposamen horietako bi hautatu dira eta hezkuntza formalean lantzeko prestatu dira adibide gisa.

*Bertsolaritza, 3. zikloa, jakin-mina, Lehen Hezkuntza, ikaskuntza*

El objetivo principal de este trabajo es analizar cuál es el interés por el bertsolarismo de los alumnos y alumnas que están en el tercer ciclo de Educación Primaria y qué tipo de conocimiento y prejuicios tienen sobre el bertso, para ver si el bertsolarismo puede o no aplicarse a la educación a partir de sus sugerencias. Para ello, todos los alumnos y alumnas del tercer ciclo de un centro de enseñanza de una localidad vasca de Bizkaia han respondido a un cuestionario creado para este trabajo teniendo en cuenta la investigación científica y bibliográfica realizada en el marco teórico. En base a los resultados obtenidos, los alumnos y alumnas han mostrado interés por el bertsolarismo, les gusta trabajarlo aunque el contexto no sea bertsozale. Además, los alumnos y alumnas han dado sugerencias para integrar el bertsolarismo en la educación formal. Dos de estas propuestas han sido seleccionadas y preparadas como ejemplo para trabajar en la educación formal.

*Bertsolarismo, 3. ciclo, curiosidad, Educación Primaria, educación*

The main aim of this work is to analyse the interest in bertsolaritza among pupils in the third cycle of primary education and what kind of knowledge and prejudices they have about bertso, in order to see whether or not bertsolaritza can be applied to education on the basis of their suggestions. To do this, all the pupils in the third cycle of a school in a Basque town in Bizkaia answered a questionnaire created for this work, taking into account the scientific and bibliographical research carried out in the theoretical framework. On the basis of the results obtained, the pupils showed an interest in bertsolaritza and enjoyed working on it, even if the context was not bertsozale. Furthermore, the pupils made suggestions for integrating bertsolaritza into formal education. Two of these proposals have been selected and prepared as examples to work on in formal education.

*Bertsolaritza, 3rd cycle, curiosity, Primary Education, education*

## 1. Sarrera eta lanaren justifikazioa

Gradu Amaierako Lan honen zergatia ulertu ahal izateko ezinbestekoa da bertsolaritzak niregan izan duen inpaktua eta mundu horretan nola sartu nintzen jakitera ematea. Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetan bertsolaritza klaseak izan genituen eta aspergarriak ziren arren, interesa erakusten nuen nik. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako matrikula egiteko unea iritsi zenean hautazko irakasgai bezala bertsolaritza hartzeko aukera genuen. Hasieran ez nuen hautatu, inguruko inor ez baitzen joango, baina gertukoak hain izan ziren astunak gutun-azala itxi aurretik, azken segundoan, karratutxo hura markatu nuela. Hala ere, laster damutu nintzen hartutako erabakiaz. Besteak beste, beldurra, lotsa eta atsekabea sentitu nituen bertsolaritzako lehen klasera sartu aurretik, ez bainuen bertaratzetik nahi. Baina ordu beteko saio hura igaro ostean guztiz aldatu zitzaidan ikuspegia, bizitzan igarotako ordu ederrenetarikoa izan baitzen hura. Horri esker, gaztelaniaz hitz egiteko joerak alde batera utzi nituen euskara hutsean jarduteari ekin bainion eta adin ezberdinetako jendea ezagutu nuen, hitza eta doinua lotzen dituen mundu txiki horretan guztiz murgilduz.

Geroztik, bertsolaritza neure egin dut, ez naiz plaza-andrea, baina, egia da bertsoak nire bizitzako esparru oso garrantzitsu bat okupatzen duela. Bertsoak lagun berriak, hizkuntza, nortasuna... eman dizkit, bertsoak ikasteko teknika gisa balio izan dit eta bertsoari esker lau urteko gradu honetan zehar izan ditudan erronka ugari gainditu ditut. Bertsolaritzak milaka gauza ezberdin eskaini dizkidanez, ni ere harekin zorretan nagoela uste dut, beraz, lan hau hari eskaintzea ideia bikaina delakoan nago. Ondorioz, bertsoa eta hezkuntza uztartzen dituen lan bat da ondoren datorrena, bertsoak niri eman didan hori guztiori nik bertsolaritzari, ikasleei eta nire antzeko egoeran egon daitekeen edozeini emateko asmoarekin.

Halaber, aipatzekoa da lan honek Garapen Iraunkorrerako Helburuetatik laugarrenarekin egiten duela bat, hau da, “Kalitatezko Hezkuntza” helburuarekin (Nazio Batuen Erakundea, 2015). Izan ere, bertsolaritzarekiko interes minimo bat izatekotan, bertsolaritza ikasteko erabili daitekeela frogatzea da nire asmoa eta bertsoa bezalako tresna eder bat plazaratzea. Horrenbestez ikerketa honen helburu orokorra da:

**Helburua:** Bizkaiko kostaldeko herri euskaldun bateko Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleek bertsolaritzari buruz duten interesa nolakoa den eta bertsoari buruz zein ezagutza eta aurreiritzi mota duten aztertzea eta beraientzako onuragarria izan daitekeen aztertzea, bertsolaritza eta hezkuntza uztartzen saiatzeko.

Helburu hori aurrera eramateko asmoarekin, lana sei ataletan adarkatzen da. Sarrera honen ostean, marko teorikoa eta kontzeptuala garatuko da. Hirugarren atalean metodologia

azalduko da, alde batetik, datuak jasotzeko jarraitu den metodologia azalduko da eta bestetik, datuak aztertzea. Jarraian, laugarren atalean ikerketaren emaitzak aurkeztuko dira eta hurrengoan, bosgarrenean, emaitza horiekin elkarloturik dagoen proposamen funtzionala aurkeztuko da. Azkenik, seigarren atalean ondorioak aurkezten dira, lanari amaiera emateko.

## 2. Marko teorikoa

Sarreraren osteko atal honetan, marko teorikoa garatuko da. Bertan, iturri bibliografiko ezberdinak kontsultatu ostean garatutako esparru teorikoa eta kontzeptuala azalduko da. Beraz, hitz hauen atzetik lau azpiataletan adarkatzen den marko teorikoa azaltzen da; lehenengo azpiatalean bertsolaritza zer den eta historikoki izan duen ibilbidea azaltzen dira. Bigarren azpiatalean bertsoa zer den definitzen da eta hura osatzen duten aspektu ezberdinen (doinua, neurria eta errima) berri ematen da. Hirugarren azpiatalean aldiz, bertso eskolei buruzko informazioa ematen da “gu ere bertsoan” egitasmoan zentratuz.

### 2.1. Bertsolaritzaren definizioa eta ibilbide historikoa

Lehenik eta behin, ezinbestekoa da bertsolaritzaren munduan murgiltzea. Horretarako, ondorengo ataletan, bertsolaritza definitzeaz gain, honen ibilbide historikoa nolakoa izan den azaltzen da, oraindik ez baitago guztiz argi zein izan zen bertsolaritzaren sorrera.

#### 2.1.1. Zer da bertsolaritza?

Bertsolaritza bertsoak bat-batean edo modu idatzian asmatzeko artea da. Gainera, ahozko literaturaren fenomenoetako bat da eta euskal hiztunengan oso erroturik dago (Aulestia, 2020). Perezek dionaren arabera (2009), Xabier Amurizak, bertso bakar batean, hitzak eta doinua uztartuz, bertsolaritza definitu zuen Euskal Herriko bertsolari txapelketa nagusian ondorengo puntuak abestuz (2. or.):

Hizketan lerratzen da	neurritz eta errimaz
gizonen bizitza	kantatzea hitza
jolas edo jokoan	horra zer kirol mota
pozago gabiltza	den bertsolaritza

Horrenbestez, bertsolaria gai da hainbat arlo ezberdinetako informazioarekin poesia sortzeko, umorea adierazteko eta baita emozioak kudeatzeko ere. Hori guztia, segundo gutxi batzuetan eta bat-batekotasunaren bitartez gauzatzen da (Etxepare Euskal Institutua, d.g.). Hori lortu ahal izateko ez da soilik esan nahi dena kontuan izan behar, bertsolariak hitzak neurri jakin baten barruan sartu behar baititu, elkarren artean errimatuz eta doinu jakin bat osatuz (Perez, 2009).

### 2.1.2. Bertsolaritza historikoki: ibilbide historiko laburra

Bertsolaritzak ibilbide luzea egin du historian zehar, hala ere, ez dago argi zeintzuk diren haren sustraiak eta hastapenak. Batzuek artzain aroan hasi zela diote, beste batzuek aldiz, XIX. mendearen hasierakoa dela, garai honetakoak baitira praktikari dagokionez aurkitutako nolabaiteko zorrotasun historikoa duten datuak (Larrañaga, 1995).

Hala ere, XIX. mendearen aurretik, bertsolaritza presente zegoen Euskal Herrian. Izan ere, erdi aroan zenbait emakumek bat-bateko kantuan ziharduten, horiei, *profazadak* edo *joglarisak* deitzen zitzairen (Martinez, 2005). Halaber, garai horretan Euskal herriko festa ezberdinetan koplak ugari entzun ohi ziren. Horiek ez ziren inprobisatuak izaten, baina, leloek bat-batekotasunari lekua eman ziotenean, pixkanaka-pixkanaka koplak inprobisatzeari ekin zioten (Bertsozale elkarteak, d.g.).

Horrez gain, 1545. urtean Bernart Etxeparek *Linguage Vasconum Primitae* liburua idatzi zuen bertso eta kanta ezberdinak publikatuz (Bertsozale elkarteak, d.g.). Handik urte gutxira, Ipar Euskal Herrian maskaradak egiteari ekin zitzairen, idatzitako bertsoak zirela medio (Martinez, 2005).

Nahiz eta bertsolaritzak aurretik ibilbide luzea izan, XIX. mendetik aurrerantz egindako ibilbidea soilik dago dokumentaturik. 1801ean Zabala eta Txapartegi bertsolariak bertsotan lehiatu ziren hainbat orduz 4000 pertsonaren aurrean, Villabonan (Larrañaga 1995). Handik ehun bat urtera, 1934an, lehenbiziko bertsolari txapelketa nagusia egin zen bertsoa tabernatik kalera ateratzeko asmoz eta bertan Jose Manuel Lujanbio, Txirrita izenez ezaguna, izan zen abestu zuenetako bat (Etxepare Euskal Institutua, d.g.).


Halaber, nahiz eta gerrak ez lagundu, 1945etik aurrera Iñaki Eizmendik, Manuel Olaizolak eta Enbeitatarrek bertsolaritzaren pizkundean lagundu zuten eta garai horretan gerorantz oso ezagunak bilakatu ziren bertsolariak hasi ziren bertsotan, hala nola, Lazkao Txiki eta Xalbador (Etxepare Euskal Institutua, d.g.).

Hala ere, gerra bukatu bezain pronto, Euskaltzaindiak txapelketak antolatzeri ekin zion, baina, eztabaida ugari sortu ziren eta horiei konponbidea emateko asmoz, 1986an bertsolarien elkarteak sortu zen txapelketak antolatzeko ekintzari testigua hartuz (Bertsozale elkarteak, d.g.). Gerorantz, elkarte horri Bertsozale Elkarteak izena jarri zitzaion eta hori izan da bertso mundua eta horrekin batera bertsolari txapelketak antolatu dituen gaur egunera arte. Horrez gain, eskualde bakoitzeko bertsozale elkarteak bere txapelketa propioak antolatzen ditu, baita gazteentzako eta eskolarteko lehiaketak ere. Horri esker, bertsogintza arlo guztietara zabaldu da.

Jada ez da plaza giroan gauzatzen den artea soilik gazteen artera, eskoletara... ere hedatu baita bertsoa (Egaña *et al.*, 2001).

## 2.2. Bertsoa

Egañak eta lankideek diotenaren arabera (2001), “Bertsoa berbaldi bat da, kantatuz, errimatuz eta neurtuz burutzen dena. Berbaldi bakoitzak, edukiak eduki, beti izango du doinu bat, errima bat eta neurri bat” (81. or). 1. irudian ikus daitekeen bezala bertso bat osatzeko orduan ezinbestekoa da hainbat aspektu kontuan izatea:



**1. irudia.** Bertso bat osatzeko kontuan izan beharrekoak (Bertsozale Elkarte, d.g.)

### 2.2.1. Doinua

Herri musika eta bertsoa elkarri eskutik helduta ibili direnez mende askotan zehar, herri musikari sarri bertso doinu deitu izan zaio, herri musika denboraren poderioz, bertsoetarako doinu edo melodia gisa erabili baita (Dorransoro, 2007). Halaber, nahiz eta herri musikak eta bertsoetarako doinuek ez duten zertan eskutik helduta joan, aberastasun handia gordetzen dute horiek, bai alderdi melodikotik eta baita erritmikotik ere. Halaber, aberastasun hori testua “esan” edo kantatzeko erari dagokio (Mendizabal, 2009).

Herri musikatik datozen doinuez gain, badira bertako edo beste herrialde bateko kantariei ikasitako doinuak eta baita zenbait kantautore edo musikariri eskatutako doinu propioak ere. Beraz, horiek hiru talde ezberdinetan bereiz daitezke: neurritz parera datozen doinu berriak, propio osatutako doinuak eta usadiozko doinu herrikoiak (Egaña *et al.*, 2001).

Horrez gain, Mendizabalek diotenaren arabera (2009), “Doinuen erritmoari azentuak eta testuak eragiten diote” (322. or.) eta erritmo horrek gaian baldintzatuko du. Izan ere, hautatzen den gaiaren arabera doinua era batekoa edo bestekoa izango da, umorezkoa, kontakizunezkoa... Hori, gurea bezalako gizarte batean, entzuleria zabal eta aldakorra dagoen tokian, bertsolaritzak sorrarazten duen erantzun sozialaren gakoetako bat da. Hain zuzen ere, entzuleria heterogeneo eta berriarengana iristen diren edukiak kantatu ahal izateko (Egaña *et al.*, 2001).

### 2.2.2. Neurria

Aurretik aipatu bezala, bertso bat sortzerako orduan doinu zehatz bat izaten du bertsolariak buruan eta doinu horrek neurri jakin bat izan ohi du, hau da, silaba kopuru zehatz

bat. Beraz, bertsozale elkarteak esaten duenez (d.g.), “bertsoa puntutan zatitzen da eta puntu bakoitzak, neurriaren arabera, silaba kopuru jakin bat izango du”.

Horrenbestez, Egañak eta lankideek diotenaren arabera (2001), ondorengoak dira bertsolaritzan orokorrean, baina baita bertsoa irakasteko orduan ere, gehien erabiltzen diren neurriak. Hala ere, badaude beste neurri batzuk asko erabili ohi direnak, baina horiek batik bat bat-bateko bertsolaritzan lantzen dira eta ez horrenbeste bertsoa irakasteko orduan:

- *Zortziko txikia*: lau puntuz edota zortzi bertso-lerroz osatzen da, puntu bakoitzak bi bertso-lerro baititu. Horrez gain bertso lerro bakoitiek zazpi silaba dituzte eta bikoitiek aldiz sei.
- *Zortziko handia*: zortziko txikiaren puntu kopuru berbera izan ohi du. Baina kasu honetan bertso-lerro bakoitiek hamar silaba dituzte eta bikoitiek aldiz zortzi.
- *Hamarreko txikia*: neurri honetan puntu kantitatea aldatu egiten da. Izenak dioen bezala, hamar bertso-lerroz edota 5 puntuz osatzen da hamarreko txikia. Txikia denez, zortziko txikian bezala, zazpi eta sei silabako bertso-lerroez osaturik dago.
- *Hamarreko handia*: hamarreko handiak zortziko handiaren eta hamarreko txikiaren ezaugarri berberak elkarbanatzen ditu. Izan ere, hamarreko txikia bezala, bost puntuz osatzen da eta zortziko handiak gisa, hamar eta zortzi silabako bertso-lerroak tartekatzen ditu.
- *Kopla txikia*: koplak bertso erdiak dira. Hau da, bi puntu edo lau bertso-lerro dituzte. Kasu honetan gainera, txiki adjektiboa alboan duelarik, koplako bertso-lerro bakoitiek zazpi silaba izango dituzte eta bikoitiek ordea sei.
- *Kopla handia*: kopla handiak ere bi puntu izango ditu, baina, kasu honetan hamar eta zortzi silabako lau bertso-lerroz egongo da osaturik.

### 2.2.3. Errimak/Oinak

Bertsoen barruen puntuen amaieran kokatzen diren hitzek elkarrekiko duten hoskidetasunari deitzen zaio errima eta puntu horietako azken hitza oina izango litzateke. Beraz, oinek errimatu egiten dute beraien artean (bertsozale elkarteak, d.g.).

Euskaltzaindiak diotenaren arabera (d.g.), bertsotan ez dauden arren errima kontsonante eta asonanteak, hau da, ustez oinen azken silabek berdin-berdinak izan behar duten arren, hitzen kontsonanteei dagokienez badaude zenbait kidetasun errima gisa onartzen direnak, 2. irudian erakusten direnak alegia.



B, D, G eta R	K, P eta T	S, X, eta Z	TS, TX, eta TZ	N eta M
<ul style="list-style-type: none"> <li>• BeGiRaDa hitza izango litzatekeena.</li> <li>• Adibidez: traba, balada, saga, izara....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• KoPeTa hitza izango litzatekeena</li> <li>• Adibidez: jiraka, aldapa, aterata....</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gosea, halakoxea, haizea...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Iritsi, itxi, iritzi...</li> <li>• Posible da baita S, X eta Z multzoa, TS, TX eta TZ-rekin errimatzea: abisu, itsu, berdintsu, egizu...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Dena, problema...</li> </ul>

**2. irudia.** Errima gisa onartzen diren kontsonanteak

**2.3. Bertso eskola**

Gaur egun, bertsoan ikasteko eta aurretik azaldutako atal guztiak lantzeko tokiak bertso eskolak dira. Bertso-ekolek euskal gizartean izugarritzko mugimendua eragin dute eta horien sustraiak ez dira soilik gizartean eta plazan errotu, hezkuntzan ere baitabiltza hazten. Hurrengo atalei dagokienez, bertso eskoletan zentratzen dira horien historia, esanahia... azalduz. Horrez gain, hezkuntzan zer funtzio betetzen duten eta zertarako erabiltzen diren ere azalduko da.

**2.3.1. Bertso eskolen sorrera**

Bertso eskolak gaur egun zer diren ulertu ahal izateko, ezinbestekoa da historikoki izan duten bilakaera eta influentzia nolakoak diren argi izatea. Lehenengo bertso-eskola 1959an sortu zen, Bizkaian, Muxikan. Urte hartan, Balendin Enbeitak lortu zuen Bizkaiko txapela eta gertakizun hori berriz ere herriaren parte egiteko asmoarekin, Enbeitatarrek, Sarduitarrek, Ajuriatarrek eta Jon Lopategik elkartzeari ekin zioten, bertso eskolen hazia ereinez (Martinez, 2005).

Hala ere, 80ko hamarkadatik aurrera hasi ziren bertso eskolak indarra hartzen (Barandiaran, 2020). Izan ere, garai hartan, bertsolari izaten ikasteko lehenengo metodo didaktikoak argitaratu ziren Xabier Amurizaren eta Joanito Dorronsororen eskutik (Alvarez-Uria *et al.*, 2021). Gainera, bertso-ekolek mugimendu bizia ekarri zuten, bertsozaleez gain hamaika talde ezberdin mugiarazi zituztelako (Agirreazaldegia, 2002). Halaber, nahiz eta urteak pasatu diren bertso eskolen mugimendu horrek bizirik darrai gaur egun ere eta eremu ezberdinetara zabaldu da.

**2.3.2. Zer dira bertso eskolak?**

Bertsozale elkarteak azaltzen duenez (d.g.), “Bertso-ekolak bertsolaritzaren ezagutzan sakondu eta hizkuntzaren alde ludikoa lantzeko eratzen diren guneak dira. Euskal kultura modu sortzaile eta aktibo batean bizitzeko”. Funtsean, bertso-eskoletan, bertsolaritzaren teknika eta alderdi formalak praktikatzen eta ikasten dira, baita saioen simulazioak egin ere. Hori guztia, ez

da soilik inprobisazioaren bitartez lantzen, idatziak eta entzumenak ere izugarritzko garrantzia baitute bertsoen irakaskuntzan (Barandiaran, 2020).

Rodriguezek dioen bezala (1991), “bertso-eskolak diogu, zeren eta guzti hauen xedea ez ohi baita bertsolariak egitea, bertsoaren mundua erakutsi eta, behar den neurrian, zaletzea baizik” (305. or.). Hala ere, bertso eskoletan ez da bertsoaren alderdi teknikoa soilik lantzen, bertsolarietarako hurbilketa beste era batzuetan ere egin baitaiteke. Izan ere, bertso eskolak sozializazio guneak dira eta horiei esker, haur askok komunitatean parte hartzeari ekiten diote, bertan beharrezkoa den babes sentimentua aurkitzen dutelako (Alvarez-Uria, *et al.*, 2021).

Halaber, sozializazioa sustatzeaz gain, bertso-eskoletan zenbait metodologia berritzaile jarri dituzte martxan eta horrek ikasleen autonomian ere laguntzen du. Azken finean, metodologia horiek aurrera eraman ahal izateko, ikasle taldea eta ikasle bakoitza kontuan izanik, egokitzapenak egiten dira guztien beharrak ase ahal izateko (Alvarez-Uria, *et al.*, 2021). Hori horrela izanik, hezkuntza formalera ere eraman da hori, bertsoa Euskal Herriko ikastetxe ezberdinetan murgilduz.

### **2.3.3. Gu ere bertsoan**

Aurreko ataletan azaldu bezala, hasiera batean bertsolarietara eremu informalean edo hezkuntza ez arautuan soilik lantzen zen. Baina, hezkuntza arautura pasatzea bai ikasleentzat eta baita bertsolarietarako ere pausu nahiko handia eta garrantzitsua izanik, Bertsozale Elkarteak bideratuta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko adituen aholkularietarekin, 2008an Bertsolarietaren Curriculum Lehen hezkuntzan argitaratu zen, ondoren, “Gu ere bertsoan” egitasmoa martxan jartzeko asmoarekin (Hik Hasi, 2012).

Esandako moduan, gaur egun, Bertsozale Elkarteak “Gu ere bertsoan” proiektua eskaintzen die Euskal Herriko ikastetxeei. Egitasmo honek ikasturte osoa irauten du eta kasu batzuetan astean behin eta beste batzuetan bi astetik behin, ikasleek bertsolarietara eskolak jasotzen dituzte hezkuntza arautuan. Egitasmo hau D ereduko Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetara dago bideratuta batik bat, hala ere, badaude laugarren mailan bertsolarietara lantzen duten ikastetxe batzuk. Gainera, hori guztia Euskara ikasgaiaren barruan egin ohi da, hau da, ordutegi trinkoaren barnean (Bertsozale elkarteak, d.g.).

Nahiz eta eskola horiek ikastetxean bertan landu, Bertsozale Elkarteak irakasleak gidatzen ditu, beti ere tutorearekin harremanetan egonik. Horretarako, Bertsozale Elkarteak egitasmo hau burutzeko argitaratutako “Gu ere bertsoan” ikasliburuez baliatzen dira ikasleak. Gainera material osagarriak ere erabiltzen dituzte, adibidez, *bertsoeskola.eus* edo *bertsoikasgela.eus* webguneak (Hik Hasi, 2012).

Horrez gain, ikastetxeetan nahiz eta idatziari ere garrantzia eman, batez ere bat-batekotasuna lantzen da bertsolaritza eskoletan. Haatik, ikasleei zenbait egoera ezberdin planteatzen zaizkie, sarri ikasgelatik at gertatzen direnak eta horien bitartez hizkuntza-komunikazioa lantzea da helburua (Hik hasi, 2012).

“Gu ere bertsotan” egitasmoaren beste helburuetako bat bertsoarekin inongo loturarik ez duten ikasleak mundu hori ezagutu eta bertan murgiltzea da. Horretarako, sekuentzia didaktiko ezberdinak eramaten dira aurrera, ikasleei saio ezberdinen berri ematen zaie eta bertsoaldiak edota bertso-saioak entzuteko aukera ere eskaintzen zaie ikasleei (Hik hasi, 2012).

### 2.3.3.1. Bertsolaritzaren curriculuma Lehen Hezkuntzan

Transmisio bide berriak zabaltzeko bertsoaren alderdi didaktikoaz baliatzea helburu izanik, Bertsolaritzaren Curriculuma Lehen Hezkuntzan sortu zuten (Aizpurua *et al.*, 2008). Halaber, Aizpurua eta lankideek diotenaren arabera (2008), “Ugaritasun horren guztiaren itzalean sortu du Bertsozale Elkarteak curriculum hau: curriculum irekia eta malgua; integratzailea; ikuspegi epistemologiko berriak kontuan hartu dituen; ikas-irakaskuntza prozesuaz hausnartu duena; eta eraldagarria” (10. or.). Horrez gain, curriculum honek bertso-gintzaren bitartez zenbait kompetentzia ezberdin lantzeko aukera ematen du (Aizpurua *et al.*, 2008).

## 3. Ikerketaren helburuak eta hipotesiak

Atal honetan ikerketaren helburu orokorra, helburu zehatzak eta planteatzen den hipotesia zein den aipatzen dira. Helburu orokorrari dagokionez, ondorengo planteatzen da (H<sub>0</sub>):

**H<sub>01</sub>:** Bizkaiko kostaldeko herri euskaldun bateko Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleek bertsolaritzari buruz duten interesa nolakoa den eta bertsoari buruz zein ezagutza eta aurreiritzi mota duten aztertzea eta beraiantzako onuragarria izan daitekeen aztertzea, bertsolaritza eta hezkuntza uztartzen saiatzeko.

Helburu zehatzak aldiz ondorengoak dira (H<sub>Z</sub>):

**H<sub>Z1</sub>:** Bizkaiko kostaldeko herri euskaldun bateko Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleen bertsolaritzarekiko interesa ezagutzea.

**H<sub>Z2</sub>:** Bizkaiko kostaldeko herri euskaldun bateko Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan dauden ikasleek bertsolaritzari buruz duten jakin-mina eta iritzia ezagutzea generoaren arabera.

**HZ3:** Bizkaiko kostaldeko herri euskaldun bateko Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleek bertsolaritzari buruz duten jakin-mina eta iritzia ezagutzea adinaren arabera.

**HZ4:** Bizkaiko kostaldeko herri euskaldun bateko Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleek bertsolaritzari buruz duten jakin-mina eta iritzia ama hizkuntzaren arabera.

Hipotesiaren (H) kasuan, ikerketa galderari planteatzen zaion erantzun posiblea edo aurreikusten den emaitza izanik, ondorengoa da ikerketa honetan planteatzen dena:

**H1:** Lehen Hezkuntzako Hirugarren zikloko ikasleek ez dute bertsolaritzarekiko interesik eta ez dute pentsatzen bertsolaritza eduki ezberdinak lantzeko erabil daitekeenik.

**4. Metodologia**


Lan hau aurrera eramateko eta helburua erdiesteko jarraitu den metodologia azalduko da atal honetan. Atala azpiatal bitan banatzen da. Lehenengoan, datuak jasotzeko jarraitutako metodologia azalduko da eta bigarreanean aldiz, datuak zelan aztertu diren azalduko da.

**4.1. Datuak jasotzeko metodologia**

Datorren atalean hipotesia baieztatzeko edo ezeztatzeko egindako ikerketa burutzeko jarraitu diren pausuak ageri dira. Bestela esanda, ikerketaren lagina zein den, ikerketa burutzeko zein tresna erabili den eta ikerketari ekin aurretik jarraitutako prozesua zein izan den azalduko da.

**4.1.1. Lagina**

Ikerketa honetako lagina, Bizkaiko kostaldeko herri euskaldun bateko ikastetxe bateko Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako eta seigarren mailako (3. zikloa) ikasleek osatzen dute. Guztira 58 ikaslek hartu dute parte. Hiru aldagai desberdin hartu dira kontuan ikerketarako: generoa, ama hizkuntza eta ikasmaila..



**3. irudia.** Ikerketa aurrera eramateko erabilitako laginaren hedadura.

3. irudian ikus daitekeenez, 58 ikasle horietatik, 18 mutilak izan dira eta 40 neskak. Ama hizkuntzari dagokionez, lau ama hizkuntza agertu dira: euskara (48 ikasle), gaztelania (2 ikasle),

euskara eta gaztelania (6 ikasle) eta aurretik aipatu ez den beste ama hizkuntza bat (2 ikasle). Ikasmilari dagokionez, 5. mailako 33 ikaslek hartu dute parte eta 6. mailako 25 ikaslek.

#### 4.1.2. Tresna

Ikerketa honetarako emaitzak lortzeko eta ikasleek bertsolaritzari buruz duten interesaren berri izateko, galdetegi<sup>1</sup> bat sortu da lan honetarako aproposa dena. Horretarako, *Google Forms* erabili da. Galdetegiak 6 sekzio ezberdin ditu, guztira 29 itenez osatutakoak eta sekzioetako bakoitzak bertsolaritzaren arlo ezberdin bat jasotzen du barnean.

Horrez gain, mota anitzeko galderak ageri dira bertan eta horiek modu ezberdinetan erantzun daitezke, hau da, galderetako batzuk kuantitatiboki erantzun behar dira eta beste batzuk aldiz, kualitatiboki. Alde batetik, galdera Dikotomikoak ditugu, hau da, bai edo ez erantzuteko galderak. Beste alde batetik, *Likert* eskalaren bitartez erantzuteko galderak aurki daitezke eta horiek batetik bostera erantzutekoak izan ohi dira. Azkenik, arestian aipatu bezala, galdera kualitatiboak ere badaude eta kasu honetan, ikasleek beraien erantzunak garatu eta testu erara idatzi behar dituzte.

Erantzun guztiak anonimoak izan dira, ikasleen generoa, ama hizkuntza eta ikasmila izan baitira identifikatzaile bakarrak (ikus 9. atala). Aldagai horien arabera aztertu dira emaitzak geroago azalduko den moduan.

Lehenengo sekzioari dagokionez, ikasleak bertso-eskolara joaten diren edo ez ere galdetzen da eta sekzio hori 1, 2, 3 eta 4 galderek osatzen dute. Bigarren sekzioak aldiz, bosgarren galderatik zortzigarren galderara arte hartzen ditu barnean eta bertsoarekin lotutako gustu ezberdinei buruz galdetzen du ikasleak egoera ezberdinetan kokatuz eta bertsolaritza klaseetan egiten diren jarduera ezberdinetan zentratuz. Gainera, sekzio honetako erantzunak *Likert* eskalaren bitartez eman behar dira, baieztapenarekiko adostasun maila adieraziz. Hirugarren sekzioa “Gu ere bertsotan” egitasmoan zentratzen da, bederatzigarren galderatik hamaseigarren galderaraino gelan egiten dituzten lan eta ariketa ezberdinei buruz galdetuz. Kasu horretan ere, erantzunak *Likert* eskalaren bitartez kalifikatu behar dira, baina, azken galderari dagokionez, “*Ikastolan bertsolaritza ikastea iruditzen zait...*” esaldiari amaiera ematean datza eta ondoren zergatia idazteko eskatzen da. Laugarren sekzioak bertsoak zertarako balio dezakeen aztertzea du helburu. Hamazazpigarren galderatik hasi eta hemeretzigarren galderara arteko guztiak kualitatiboak dira. Alde batetik, hainbat erantzun posible proposatzen dituen galdera bat aurkitzen da eta bat baino gehiago aukeratu daitezke eta bestetik, ikasleek idazteko

---

1

[https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSdv1BHHccZnLbpSI13zINmLnZZ7uZ3CXTK3GJugMV\\_1B8FdOg/viewform?usp=sharing](https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSdv1BHHccZnLbpSI13zINmLnZZ7uZ3CXTK3GJugMV_1B8FdOg/viewform?usp=sharing)

atal bat ere badago. Bosgarren sekzioan bertsolaritza hezkuntza formaleko edukiekin uztartzeko zenbait proposamen agertzen dira eta batetik bestera bakoitza burutzea gustatuko litzaieken edo ez jarri behar da hogeigarren eta hogeita seigarren galderen artean. Azkenik, seigarren sekzioa hogeita zazpigarren galderaz dago osatuta eta ondorengoa dio: *Imajinatu, irakaslea gelan sartu eta ondorengoa proposatzen dizuela: Ikastetxean bosgarren eta seigarren mailan orain arte landu dugun edo etorkizunean landuko dugun edozein eduki bertso-bidez ikas dezakezue. Gainera, "Gu ere bertsoan"-en landutako edozein metodo, jolas... erabil dezakezue. Hori burutzeko, zuk zein ikasgai eta zein gai aukeratuko zenituzke? Zelan gustatuko litzaizuke lantzea?* Kasu horretan, bakoitzak bere iradokizun eta proposamenak plazaratzeko aukera du.

#### 4.1.3. Prozedura

Aipatutako galdetegi hori aurrera eraman eta ikastetxeko ikasleek erantzun ahal izateko, ezinbestekoa izan da lehenik eta behin prozedura zehatz bati jarraitzea. Beraz, hasteko ikastetxeko zuzendaritzako kideei gutun bat helarazi zaie lan honen helburua zein den azaltzeko eta lortutako emaitzei zein erabilera emango zaien argitzeko (1. eranskina). Gainera, datuak generoaren, ama hizkuntzaren eta ikasmailaren arabera aztertuko direla zehaztu da ikasleen pribatutasuna bermatu ahal izateko.

Ikastetxearen oniritzia eta baimena lortu ostean, ezinbestekoa izan da bosgarren eta seigarren mailako tutoreekin hitz egitea, lanaren helburua azaldu eta galdetegia pasatzeko orduak finkatu ahal izateko. Bosgarren mailako bi geletan ekintza burutzeko ordu berbera erabili da eta seigarren mailako gelarako aldiz, beste ordu bat finkatu da. Hori guztia egindakoan, galdetegia pasatzeari ekin zaio. Horretarako, ikasle bakoitzak bere ordenagailu propioa hartu du eta bakarka eseri dira, erantzunek ondokoen eraginik ez izateko. Halaber, ez da aparteko azalpenik eman, hau da, galdetegia bertsolaritzari eta hezkuntzari buruzkoa dela azaltzeaz gain, ez da bestelako informaziorik eman ikasleen erantzunak ez baldintzatzeko. Halaber, zalantza ezberdinak argitu dira, baina, horietako bat agertu den heinean modu indibidualean eman zaio erantzuna, ahalik eta informazio gutxien helaraziz.

#### 4.2. Datuak aztertzeko metodologia

Behin datu guztiak bildutakoan, emaitzak aztertzeari ekin zaio. Horretarako, lehendabizi *Excel* orri batera irauli dira jasotako erantzun guztiak, bertan beharrezko etiketazioa eta analisiak egin ahal izateko. *Likert* eskalaren bitartez jasotako emaitzetatik erabilgarriak izango diren itemak hautatu eta bakoitza ezberdin izendatu da (1. taula). Horretarako, lehenengo itemari Q1 izena jarri zaio, bigarrenari Q2 eta horrela gainerako itemekin. Beraz terminologia hori da datozen ataletan erabiltzen dena.

**1. taula.** Galderak eta Likert eskalako erantzun bakoitzeko ehunekoak.

ITEMAK	ITEMEN IZENDAPENAK
Atsegin dut bertsolaritza.	Q1
Bertsoak bat-batean (modu inprobisatuan) sortzea gustatzen zait.	Q2
Bertsoak idatziz sortzea gustatzen zait.	Q3
Bertsotan gai ezberdinak lantzea gustatuko litzaidake, adibidez, bertso sortak entzunez edota jolas ezberdinak eginez.	Q4
Ikastolan bertsolaritza klaseak izaten ditugunean gogotsu joaten naiz bertara.	Q5
Bertsolaritza klaseetan aktiboki hartzen dut parte.	Q6
Bertsoak bat-batean egiten ditugunean uste dut ona naizela eta erraztasunez jarduten naiz.	Q7
Bertsoak idatziz egiten ditugunean uste dut ona naizela eta erraztasunez jarduten naiz.	Q8
Ikastetxean bertsolaritza klase gehiago izatea gustatuko litzaidake.	Q9
Matematiketan formula ezberdinak buruz ikasi beharrean bertso bidez ikastea.	Q10
Gizakiaren eboluzioa ikasterako orduan liburuak erabili beharrean bertso sortak erabiltzea.	Q11
Kopla bidez lurraren geruza ezberdinak ikastea.	Q12
Giza gorputzaren atalak bertso jolas interaktibo baten bidez ikastea.	Q13
Testu ezberdinen ezaugarriak hobeto gogoratu ahal izateko bertso sortak erabiltzea.	Q14
Irudi geometrikoen ezaugarriak bertso karten bidez lantzea.	Q15
Historiako garai ezberdinak ikasteko orduan bertso jolasak edo bertso sortak erabiltzea, irakaslearen azalpenak entzun beharrean.	Q16

Gero, emaitza ezberdinen ehunekoak atera dira eta *Likert* eskala erabili denez, eta item edo esaldi bakoitzean batetik bosterako adostasuna adierazi behar izan dutenez ikasleek, 1 zenbakia “ez” bezala izendatu da, 2 “ia ez” bezala, 3 “erdizka”, 4 “ia bai” eta 5 “bai”. Era horretan errazagoa izan da ikasle bakoitzak nolako adostasun mota adierazten zuen neurtzea.

Bukatzeko, emaitza guztiak grafiko gisa erakutsiko dira. Hori burutu ahal izateko testuinguru estatistikoa erabili da. Beraz, aldagai ezberdinen arabera emaitzak aztertzeaz gain, horien arteko korrelazioa nolakoa izan den ere neurtu da.

Emaitza kualitatiboei dagokienez, hasteko kuantitatiboki adierazi dira irizpide ezberdinen arabera multzokatuz: Lehenengo irizpidean zentratuz, “Ikastolan bertsolaritza ikastea iruditzen zait...” “Zergatik?” esaldiaren jarraipenari dagokienez, bost multzotan sailkatu da (0, 1, 2, 3 eta 4). 0 multzoan kokatu diren emaitzak bertsolaritza aspergarria dela edota gustuko ez dutela adierazten dutenak dira. 1 multzoan sailkatu direnak aldiz, esaldiaren amaieran bertsolaritza lantzea gustuko dutela esan arren zergatian kontrako jarrera hartu duten ikasleen emaitzak dira. Jarraitzeko, 2 zenbakiarekin izendatutakoetan bertsolaritza ematea dibertigarria iruditzen zaiela esaten duten emaitzak daude eta 3 zenbakiarekin izendatutakoetan bertsolaritzari buruzko jakintza bereganatzen duelako dutela gustuko esaten dutenak. Azkenik, 4 multzoan, bertsoak eduki ezberdinak lantzeko balio dezakeela dioten emaitzak kokatzen dira.

Horrez gain, bertsolaritzak zertarako gehiago balio dezakeen galdetu denean ere erantzun ezberdinak egon dira bost taldetan (0, 1, 2, 3 eta 4) banatu direnak. Lehenik eta behin, 0. multzoan bertsolaritzak ez duela ezertarako balio dioten emaitzak kokatzen dira, 1. taldean abesti ezberdinak eta bertsotan ikasteko balio duela diotenak, 2. multzoan ikasteko eta lan egiteko balio duela bertsolaritzak diotenak, 3. multzoan euskara ikasteko eta hiztegia aberasteko balio duela diotenak eta azkenik, 4. multzoan sentimenduak adierazteko balio duela diotenak.

Bukatzeko, bertsolaritza lantzeko eta hezkuntza formaleko edukiekin bertsoa uztartzeko moduak proposamen ezberdinen bitartez plazaratzeko eskatu zaienean agertutako emaitzak zazpi taldetan (0, 1, 2, 3, 4, 5 eta 6) multzokatu dira. 0. multzoan proposamenik luzatzen ez dutenen emaitzak daude, 1. multzoko emaitzek ikastetxetik at burutzen dituzten jardueretako proposamenak luzatzen dituzte, 2. taldekoak ez dira irakasgai zehatz baten oinarritzen, hau da, orokorrean burutzeko proposamenak egiten dituzte, 3. multzokoak musikan oinarritzen dira, 4. taldekoak euskarari 5. multzokoak ingurune irakasgaiari eta amaitzeko, 6. multzokoak matematika irakasgaiari.

## 5. Emaitzak

Atal honetan lortutako emaitzen berri emango da. Lehendabizi, emaitza guztiak itenez item azalduko dira; ondoren, galdera ezberdinen arteko korrelazioaren berri emango da; jarraitzeko, generoaren araberrako, ama hizkuntzaren araberrako eta ikasmillaren araberrako emaitzak azalduko dira eta bukatzeko, emaitza guztien sumarioa egingo da laburpen gisa.

### 5.1. Emaitzak itenez item

2. taulan *Likert* eskalaren bitartez jasotako emaitza guztiak ageri dira. Halaber, esaldi edo baieztapen bakoitzarekiko zenbateko adostasuna adierazten duten ikasleek ere adierazten da bertan, emaitza guztiak ehunekotan adieraziz.

2. taula. Galderak eta *Likert* eskalako erantzun bakoitzeko ehunekoak

ITEMAK	1 (ez)	2 (ia ez)	3 (erdizka)	4 (ia bai)	5 (bai)
Q1	% 1,72	% 5,17	% 27,39	% 39,66	% 25,86
Q2	% 15,52	% 20,69	% 39,66	% 15,52	% 8,62
Q3	% 8,62	% 17,24	% 17,24	% 32,76	% 24,14
Q4	% 1,72	% 0,00	% 13,79	% 31,03	% 53,45
Q5	% 1,72	% 5,17	% 22,41	% 22,41	% 48,28
Q6	% 5,17	% 13,79	% 25,86	% 37,93	% 17,24
Q7	% 20,69	% 22,41	% 29,31	% 22,41	% 5,17
Q8	% 3,45	% 15,52	% 32,76	% 32,76	% 15,52
Q9	% 12,07	% 12,07	% 20,69	% 17,24	% 37,93
Q10	% 8,62	% 12,07	% 22,41	% 29,31	% 27,59
Q11	% 12,07	% 8,62	% 31,03	% 24,14	% 24,14
Q12	% 8,62	% 6,90	% 22,41	% 29,31	% 32,76
Q13	% 6,90	% 12,07	% 22,41	% 22,41	% 36,21



<b>Q14</b>	% 5,17	% 8,62	% 27,59	% 34,48	% 24,14
<b>Q15</b>	% 8,62	% 12,07	% 24,14	% 18,97	% 36,21
<b>Q16</b>	% 8,62	% 3,45	% 20,69	% 34,48	% 32,76
<b>Batezbestekoa</b>	% 8,08	% 10,99	% 27,52	% 27,80	% 28,13

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, ikasleen % 25,86k bertsolaritza “atsegin duela” adierazten du, % 39,66k “ia bai” erantzun dio item horri, %27,59ak aldiz, “erdizka” gustatzen ziola bertsolaritza dio, % 5,17k “ia ez” duela gustuko eta azkenik % 1,72k “ez duela gustuko” dio.

Bertsoak sortzea gustatzeari dagokionez, modu inprobisatuan % 8,62k “baiezkoa” dio, % 15,52k “ia baietz” erantzun du, % 39,66k “erdizka” gustatzen zaiola aipatzen du, % 20,69k “ia ez” zaiola gustatzen eta % 15,52k aldiz, “ez zaiola batere gustatzen” dio. Idatziz berriz, % 8,62k “ez du gustuko”, % 17,24ri “ia ez” zaio gustatzen, % 17,24ri “erdizka”, % 32,76k “ia baiezkoa” dio eta % 24,14k “gustatzen zaiola” adierazten du.

Gainera, bertsotan gai ezberdinak lantzea proposatzen denean, % 53,45k horri “baietz” esaten dio % 31,03k “ia baietz”, % 13,79k “erdizka” eta % 1,72k “ez litzaiokeela gustatuko” adierazten du. Halaber, ikastetxean bertsolaritza klaseak izaten dituztenean gustura bertaratzeari, ikasleen % 48,28k “baiezkoa” erantzun dio, % 22,41k “ia baiezkoa”, % 22,41k “erdizka”, % 5,17k “ia ezezkoa” eta % 1,72k “ezezkoa”.

Bertsolaritza klaseetan aktiboki hartzen dut parte esaldiarekin % 17,24 “bat dator”, % 37,93 “ia bat dator”, % 25,86 “erdizka”, % 12,79 “ia ez dator bat” eta % 5,17 aldiz, “ez dator bat”. Bertsoak sortzerako orduan, bat batean egiten dituztenean % 5,17k “ona dela eta erraztasunez jarduten dela” erantzun dio, % 22,41k “ia baiezkoa” erantzun dio horri, % 29,31k aldiz “erdizka”, % 22,41 “ia ezezkoa” eta % 20,69k “txarra dela eta ez dela erraztasunez jarduten” pentsatzen du. Idatziz egiten dituztenean aldiz, % 15,52k “ona dela eta erraztasunez jarduten dela” erantzun du, % 32,76k “nahiko ona dela eta nahiko erraz jarduten dela”, % 32,76k “erdizka” erantzun dio esaldi horri, % 15,52k “ia ezezkoa” eman dio eta % 3,45k berriz, “ezezkoa”.

Jarraitzeko, galdetegia erantzun dutenen % 37,93k “ikastetxean bertsolaritza klase gehiago edukitzea gustatuko litzaiekeela” erantzun du, % 17,24k “ia baiezkoa” adierazi du, % 20,69k “erdizkako” jarrera erakutsi du, % 12,07k “ia ez” esan dio esaldi horri eta % 12,07k “ez litzaiekeela bertsolaritza klase gehiago izatea gustatuko” aipatu du.

Horrez gain, galdetegiaren bigarren atalean bertsoarekin eduki ezberdinak lantzeko proposamenak luzatu direnean hainbat erantzun ezberdin egon dira. Alde batetik, matematiketan formulak bertso bidez ikasteari % 27,59k “baiezkoa” eman dio, % 29,31k “ia baiezkoa” %


22,41k “erdiko jarrera” adierazi du, % 12,07k “ez litzaiekeela askorik gustatuko” adierazten du eta % 8,62k aldiz “ez litzaiekeela batere gustatuko” dio.

Gizakiaren eboluzioa ikasterako orduan bertso sortak erabiltzeari dagokionez aldiz, % 32,76k “baietz” erantzun du, % 24,14k “ia baietz”, % 31,03k “erdizka”, % 8,62k “ia ezetz” eta % 12,07k “ezetz” dio. Kopla bidez lurraren geruza ezberdinak ikasteari % 32,76k diotso “baiezkoa”, % 29k “ia baiezkoa”, % 22,41k “erdizkako jarrera” adierazten du, % 6,90k “ia ezezkoa” diotso eta % 8,62k hori egiteari “ezeko borobila” ematen dio.

Bertso jolas interaktibo baten bidez giza gorputzaren atalak lantzea ere beste proposamenetako bat da eta horri % 36,21k “bai” erantzuten dio, % 22,41k “ia bai”, % 22,41k “erdizka”, % 12,07k “ia ez” eta % 6,90k “ez”. Gainera, testu ezberdinen ezaugarriak hobeto gogoratzeko bertso sortak erabiltzea % 24,14k “ideia oso ona” dela pentsatzen du, % 34,48k “nahiko ideia ona” dela dio, % 27,59k “erdiko jarrera” adierazi du, % 8,62k “ez dela oso ideia ona” pentsatzen du eta % 5,17k “ez dela batere ideia ona” plazaratu du.

Azken aurreko proposamenari dagokionez, bertso karten bidez irudi geometrikoen ezaugarriak lantzea proposatzen da eta horri % 8,62k “ez” erantzun dio, % 12,07k “ia ez”, % 24,14k “erdizka”, % 18,97k “ia bai” eta % 36,21k “bai”. Azkenak aldiz, historiako garai ezberdinak bertso jolasak erabilia lantzeko proposamen luzatzen du eta horri % 8,62k “ezetz” diotso, % 3,45k “ia ezetz”, % 20,69k “erdizka”, % 34,48k “ia baietz” eta amaitzeko, % 32,76k “baietz” diotso. Bukatzeko bertsolaritza erabilgarria den edo ez galdetu zaienean, aipatzekoa da % 84,48k “baiezkoa” erantzun duela eta % 15,52k “ezekoa”.

Aipatutako erantzun horiek guztiak 4. irudian ikus daitezke ordenatuta era bisualean, irakurketa errazte aldera.




**4. irudia. Galdetegiko emaitzak ehunekoaren arabera ordenatuta**

Irudian ikus daitekeen bezala, “baiezko” erantzun gehien dituen galdera da lehendabizi agertzen dena eta gutxien jaso dituen aldiz azkena. Metodologiaren atalean aipatutako izendapenak erabiliz Q4 esaldian % 84k adierazi du “aldeko jarrera” lehenengo postuan

sailkatuz. Q5 esaldia da bigarren sailkatzen dena eta % 71k “baiezkoa” eman dio Hirugarrenari, Q16ri, % 67k esan dio “baietz” edo “ia baietz”, laugarrenari aldiz, Q1ri, % 66k diotso “baietz” eta Q12ri % 16k. Jarraitzeko seigarren eta zazpigarren postuetan Q14 eta Q13 esaldiak kokatzen dira. Bi kasu horietan % 59 kokatzen da “baiezkoaren” aldean. Ondoren, Q3a eta Q10a datoz, zortzi eta bederatzigarren postuetan eta horien “alde” % 57k egiten du. Q15k, Q9k eta Q6k ere nahiz eta bata bestearen atzean kokatu ehuneko berbera dute “baiezkoaren” aldean eta kasu honetan % 55 da. Jarraian Q8 eta Q11 esaldiak kokatzen dira % 48ko ehunekoekin. Hamabosgarren postuari dagokionez, Q7 dago % 28ko “baiezkoarekin” eta bukatzeko Q2k % 24ko “baiezkoa” du. Azken bi horietan irudian ikus daitekeen bezala “ezezkoaren” ehunekoa altuagoa da “baiezkoarena” baino. Izan ere Q7ren ezekoa % 43koa da eta Q2rena aldiz, % 36koa.

**5.2. Galderen arteko korrelazioak**

Emaitzetan ikusten den modura, esaldi batzuen artean harreman handiagoa edo txikiagoa dago (5. irudia). Beraz, azpiatal honetan harreman horien berri ematen da, beraien arteko korrelazioa positiboa ala negatiboa den eta tamaina zelakoa den aipatuz.



**5. irudia.** Emaitzen arteko korrelazioa

Goiko irudian ikus daitekeen bezala, item guztien arteko harremana positiboa da (denak urdinik ageri baitira) eta guztiek dute beraien artean nolabaiteko lotura. Hala ere, item guztien arteko korrelazioa ez da berdina, batzuk 0tik gertuago daude, hau da, korrelazio baxuagoa dute eta beste batzuk aldiz, 1etik hurbilago daudenak, korrelazio altuagoa dute. Tamainak adierazten du hori, zenbat eta biribila handiagoa izan eta kolore fuerteagoa izan orduan eta altuagoa da galderen arteko korrelazioa.


Beraz, elkarren arteko korrelazioari erreparatuz, alde batetik Q1 eta Q5 eta bestetik, Q1 eta Q6 nabarmendu daitezke. Bi bikote horien arteko korrelazioa oso altua da, 1era hurbiltzen delako. Ondorioz, bertsolaritza atsegin duten ikasleak gustura joaten dira bertsolaritza klaseetara eta aktiboki hartzen dute horietan parte. Hala ere, nahiz eta Q5 eta Q6 itemen arteko korrelazioa ere nahiko altua izan, ez da Q1rekin duten bestekoa.

Halaber, aipatzekoa da Q5 eta Q9 galderen artean dagoen harremana. Izan ere, bertsolaritza klasetara gogotsu joatearen eta klase gehiago nahi izatearen arteko korrelazioa letik nahiko gertu dago goiko irudian ikusten den bezala.

Bukatzeko, Q9tik aurrera dauden itemei dagokienez, argi ikus daiteke bertako itemen arteko harremana. Kasu horretan edukiak lantzeko proposamen ezberdinak luzatzen dira eta emaitzak bat datoz proposamen gehienetan, korrelazioa lera hurbiltzen delako. Aldiz, item horien eta Q1en arteko korrelazioari erreparatuz gero, Ora hurbiltzen dela ikusten da. Ondorioz, bertsolaritza gustuko izateak edo ez izateak ez duela bertsoa erabiliz eduki ezberdinak lantzeko nahiarekin harremanik antzeman daiteke. Haatik, hori baieztatzen duen beste zantzu bat ere badago. Hori, Q1 eta Q4 itemen arteko korrelazioa izango litzateke.

### 5.3. Generoen araberako emaitzak

Ondorengo azpiatalean generoaren araberako emaitzak aurkeztuko dira, generoak nola daragien azalduko da (6. irudia). Haatik, generoetako bakoitzean zenbat ikasle kokatzen diren aipatzeaz gain, bakoitzak zer adierazi duen eta itemetatik esanguratsuenak zeintzuk izan diren ere zehaztuko da.



6. irudia: Generoaren araberako emaitzak

Aurreko irudian ikus daitekeen bezala, aipatzekoa da “neska” eta “mutila” generoak soilik izan direla parte hartu dutenak nahiz eta “beste bat” aukeratzeko posibilitatea izan duten inork ez du hautatu. Gainera, 40 nesken eta 18 mutilen erantzunak dira horiek eta mutilen generoa 0 zenbakiarekin izendatu da eta neskena aldiz 1 zenbakiarekin.

Halaber, bost item ezberdin izan dira generoaren arabera estatistikoki esanguratsuak diren aldeak erakutsi dituztenak. Alde batetik, Q1 itema dago. Kasu honetan nesketatik 31 ikaslek erantzun dute “bai” edo “ia bai” (% 97) eta mutiletan aldiz 7 izan dira (% 67). “Ezezkoan” edo “ia ezezkoan” kokatu diren neskek 2 izan dira guztira (% 5) eta mutilen kasuan beste 2 ikaslek “ia ezetz” erantzun dute (% 11). Aipatu bezala, item honetan agertutako aldeak estatistikoki esanguratsuak izan dira generoaren arabera (p = 0,003).

Q4 itemean agertutako aldeak ere esanguratsua izan dira generoaren arabera ( $p = 0,004$ ). Kasu horretan nesketatik 1 soilik (% 2) kokatu da “ezezko” aldean eta mutilen kasuan berriz, ez da alde horretan kokatu den ikaslerik egon. Kontrako iritzidunak aldiz, hau da, esaldiari “bai” edo “ia bai” erantzun dioten mutilak 12 izan dira (% 67) eta neskak 37 (% 92).


Q5 itemari dagokionez. “bai” edo “ia bai” erantzun duten neskak 30 izan dira (% 75) eta mutilak 11 (% 61). “Ez” edo “ia ez” aldean kokatu direnei dagokienez, 3 neska daude (% 8) eta mutilen kasuan “ia ez” aldean kokatzen den 1 dago (% 6). Beraz, item horren aldeak esanguratsuak izan direla generoaren arabera esan daiteke ( $p = 0,037$ ).


Q6 itemean arreta jarriz, bertan agertutako aldeak generoaren ikuspegitik begiraturaz esanguratsuak izan dira ( $p = 0,016$ ). Izan ere, nesketatik 27 ikaslek (% 68) bertsolaritza klaseetan “aktiboki” edo “nahiko aktiboki” hartzen dutela parte diote eta mutiletan 5 (%28) dira hori esaten dutenak. Kontrako aldean berriz, hau da, esaldiarekiko desadostasuna adierazten duten alderdian, 6 neska (% 15) eta 5 mutil(% 28) kokatzen dira.

Azkenik, Q9 itemari erreparaturaz gero ere, ikus daiteke bi generoen artean agertutako aldeak esanguratsuak izan direla ( $p = 0,017$ ). Alde batetik itemak dioenarekin “ados” edo “ia ados” dauden mutilak 7 dira (% 39) eta nesken kasuan 25 ikaslek (% 62) egiten dute bat horrekin. Esaldi horrekiko “ia ez” edo “ez” aldean kokatu diren neskak aldiz, 8 (% 20) izan dira guztira eta mutiletatik 20k (% 33) hartu dute jarrera hori.

**5.4. Ama hizkuntzaren arabera emaitzak**

Azpiatal honetan ama hizkuntzen arabera jasotako emaitzen aldeak erakutsiko dira. 7. irudian ikus daitezke emaitzak grafikoki.






7. irudia: Ama-hizkuntzaren arabera emaitzak

Aurreko irudian ageri den bezala, ama hizkuntza gisa euskara duten 48 ikaslek hartu dute parte eta hauek 1 zenbakiaren bidez izendatu dira. 2 zenbakiaren bitartez izendatutako emaitzei dagokienez, ama hizkuntza bezala gaztelania dutenak dira, guztira 2 ikasle. Horrez gain, euskara eta gaztelania dituztenak ama hizkuntza gisa 6 ikasle izan dira eta 3 zenbakiarekin multzokatu dira. Bukatzeko, beste hizkuntza bat dutenak ama hizkuntza gisa 2 ikasle dira eta horiei 4 zenbakia jarri zaie izendapen modura.

Horrez gain, agertutako emaitzen arteko aldeak ez direla estatistikoki esanguratsuak izan ama hizkuntzaren arabera aipatu beharra dago. Hala ere, ikerketan aldagai bezala erabili denez interesgarri iritzi diogu emaitzen barruan sartzeari. Izan ere, kasu honetan ama hizkuntzat gaztelania edo beste bat duten arren, ikasleak euskaraz mintzo dira egunerokotasunean eta horrek ere eragina izan dezake.

5.5. Ikasmilaren arabera emaitzak

Hurrengo atalean ikasmilaren arabera emaitzak aurkeztuko dira. 8. irudian erakusten da ikasmila bakoitzeko ikasleek zer adierazi duten eta agertu diren emaitzen aldeei erreparatuz, esanguratsuak zeintzuk izan diren azalduko da irudiaren atzetik.



8. irudia. Generoaren arabera emaitzak

8. irudian ikusten den bezala, ikasmilaren arabera zenbait desberdintasun ageri dira. Galdetegia betetzerako orduan, bosgarren mailako 33 ikaslek eta seigarren mailako 25 ikaslek

hartu dute parte eta aipatzekoa da zenbait emaitzetan agertutako aldeak esanguratsuak izan direla.

Hasteko Q1 esaldiari erreparatuz gero, bertan agertutako aldeak esanguratsuak izan dira ikasmilaren arabera ( $p = 0,038$ ). Kasu horretan, bosgarren mailako 25 ikaslek (% 76) esan dute bertso eskolara joatea “gustuko dutela. Horren alde agertu diren seigarren mailako ikasleak aldiz, 13 izan dira (% 52). Kontrako aldean kokatu direnei dagokienez, bosgarren maila ikasle batek (% 3) “ia ez” duela atsegin bertsolaritza klaseetara joatea adierazi du eta seigarren mailaren kasuan 3 ikasle (% 12) kokatu dira “ez” edo “ia ez” aldean.

Jarraitzeko, Q2 galderaren kasuan, seigarren mailako 15 ikasle (% 60) dira esaldiarekiko “desadostasuna” erakutsi dutenak eta bosgarren mailakoak 6 (% 18) izan dira. Esaldiarekin “ados” egon diren bosgarren mailako ikasleen kasuan 10 ikasle (% 30) izan dira eta seigarren mailan berriz, 4 (% 16). Beraz, item horretan agertutako aldeak estatistikoki esanguratsuak izan dira ikasmilari dagokionez ( $p = 0,008$ ).

Itemak aztertzearekin jarraituz, Q5 itemean agertutako emaitzen aldeak esanguratsuak izan dira ikasmilaren arabera ( $p = 0,002$ ). Kasu horretan, 6. mailako 13 ikaslek (% 52) adierazi dute bertsolaritza klaseetara “gogotsu” joaten direla eta bosgarren mailan 28 (% 85) izan dira. Kontrako aldean kokatu diren ikasleei dagokienez, hau da, esaldiari “ez” edo “ia ez” erantzun diotenek, seigarren mailako 4 izan dira (% 16) eta bosgarren mailako batek ere ez du jarrera hori hartu.

Ikasmilaren arabera agertutako aldeak esanguratsuak izan dira Q6 itemean ere ( $p = 0,022$ ). Kasu honetan “ez” edo “ia ez” erantzun duten seigarren mailakoak 7 (% 28) izan dira guztira eta “ia ez” erantzun duten bosgarren mailakoak ostera, 4 izan dira (% 12). Aldiz, esaldiaren “alde” bosgarren mailako 21 (% 64) agertu dira eta seigarren mailan 11 (% 44).

Bukatzeko, Q9 itemean zentratuz, seigarren mailan 9 ikaslek (% 39) “bai” edo “ia bai” erantzuna eman dioten arren, bosgarren mailan 23 (% 62) izan dira hori esan dutenak. Esaldi horri “ez” edo “ia ez” erantzun dioten ikasleei dagokienez aldiz, 3 bosgarren mailan (% 20) kokatzen dira eta 10 (% 33) seigarrenean. Bertan agertu diren aldeak esanguratsuak izan dira estatistikoki ikasmilaren arabera ( $p = 0,003$ ).

## 5.6. Ikasleen ekarpenak

Arestian aipatu den bezala, emaitzetako batzuk kualitatiboki bildutakoak dira. Horiek, irizpide ezberdinen arabera taldekatu dira eta erantzunen sailkapena 3. taulan ikus daiteke.

### 3. taula. *Ikasleek egindako iradokizunak multzokatuta*

Multzoa	Sailkapena 1	Ehunekoa	Sailkapena 2	Ehunekoa	Sailkapena 3	Ehunekoa
0. multzoa	6	% 10	20	% 11,6	3	% 1,74
1. multzoa	7	% 12,07	12	% 6,96	5	% 2,9
2. multzoa	20	% 34,48	4	% 2,32	5	% 2,9
3. multzoa	12	% 20,69	7	% 4,06	2	% 1,16
4. multzoa	13	% 22,41	15	% 8,7	6	% 3,48
5. multzoa					17	% 9,86
6. multzoa					20	% 11,6

3. taulan ageri den bezala, hiru galdera mota ezberdin izan dira kualitatiboki erantzutekoak, beraz, bakoitzean agertutako erantzunak bloke ezberdinetan banatu dira. Lehenengo sailkapenean zentratuz, bertsolaritza klaseak ematea zer iruditzen zaien eta zergatia galdetu dira. Horri dagokionez, 0. multzoan ikasleen % 10 kokatzen da, 1. multzoan % 12,07, 2. multzoan % 34,48, 3. multzoan % 20,69 eta azkenik, 4. multzoan ikasleen % 22,41 kokatzen da.

Bigarren sailkapenean, bertsolaritzak zertarako balio dezakeen galdetzen da. Kasu horretan, 0. multzoan ikasleen % 11,6 kokatzen da, 1. multzoan ikasleen % 6,96, 2. multzoan % 2,32, 3. multzoan % 4,06 eta bukatzeko, 4 multzoan ikasleen % 8,7 kokatzen da.

Amaitzeko, azken sailkapenari dagokionez, ikasleek bertsolaritza eta hezkuntza formala uztartzeko proposamen ezberdinak luzatu dituzte. Kasu horretan, 0. multzoan ikasleen % 1,74 kokatzen da, 1. multzoan % 2,9, 2 multzoan, 2. multzoan ere ikasleen % 2,9 kokatzen da, 3. multzoan ikasleen % 1,16, 4. multzoan % 3,48, 5. multzoan % 9,86 eta 6. multzoari dagokionez % 11,6 kokatzen da bertan.

Horrez gain, azken galderari dagokionez, bertsolaritza eta eduki ezberdinak uztartzeko proposamenak luzatzeko eskatu zaienean ondorengoak izan dira ekarpen esanguratsuenak (4. taula):

**4. taula.** *Ikasleen ekarpen esanguratsuenak*

IRAKASGAIAK	BERTSOLARITZAREKIN UZTARTZEKO MODUAK (IKASLEEN EKARPENAK)
<b>EUSKARA</b>	- Niri aditzak lantzea gustatuko litzaidake. Horretarako, karta batzuk sortu eta karta bakoitzean egoera bat ipiniko nuke. Gainera, karta horretan aditza agertuko litzateke oin bezala erabiltzeko.
	- Paper batean hitz bat jarri (adibidez, arrosa) beharko litzakete eta ondoren paper hori albokoari pasatu honek hainbat errima idazteko. Ondoren bertso sorta bat egin beharko litzateke oin horiek erabiliz eta istorio bat kontatuz.
<b>INGURUNE</b>	- Bertsoen bidez, munduko mapa ikastea gustatuko litzaidake. Adibidez, kartetan toki ezberdinetako gauza edo ezaugarri ezberdinak agertu daitezke (zein den hiriburua, piramideak daudela...) Beraz, bertan ageri den informazioarekin eta norberak dituen ezagutzekin bertso bat sortu eta gainontzekoek lekua asmatu beharko dute.
	- Uraren zikloa ikasteko bertso sorta bat erabiltzea gustatuko litzaidake niri. Sorta horretan, fase bakoitzeko informazioa agertuko litzateke eta horrela errazago ulertu eta ikasiko genuke.
	- Historiako aro ezberdinei buruz ikasteko ondorengo proposatzen dut: Lehenengo, horiei buruzko informazioa jakiteko bertso batzuk entzutea gustatuko



	litzaidake. Gero, garai ezberdinetako irudiak dituzten kartak erabiliko nituzke, adibidez, suaren irudia duen karta bat. Ondoren, denak buruz behera jarri, norbaitek bat hartu eta bertan ageri den irudia zein garaitakoa den asmatu beharko luke bertsotan eta bertso-sortan oinarrituz.
<b>MATEMATIKA</b>	- Niri matematikako formulak (perimetroarena adibidez) bertsoz ikastea gustatuko litzaidake, nik erritmo edo abesti bidez errazago memorizatzen ditudalako gauzak.
	- Matematikan geometria bertso karten bidez ikastea gustatuko litzaidake. Kartetan bertsoak agertuko lirateke eta guk zein irudiri buruz hitz egiten duen asmatu beharko genuke.
	- Biderketa taulak bertso sorten bidez ikastea gustatuko litzaidake.

### 5.7. Sumarioa eta ondorioak

Azpiatal honen helburua bosgarren atalean zehar aurkeztutako emaitzen laburpena egitea da eta emaitza horien ondorioak ateratzea interpretazioa eginez. Horretarako, 5. taulan erakusten da *Likert* eskalaren bidez erantzundako emaitzen laburpena, batezbestekoaren bitartez.

#### 5. taula. *Ikasleek egindako iradokizunak multzokatuta*

<b>Eskala</b>	1	2	3	4	5
<b>Batezbestekoa</b>	% 8,08	% 10,99	% 27,52	% 27,80	% 28,13

Lanean zehar ageri diren emaitzetan zentratuz eta 5. taulan oinarrituz ondorengo puntuak ondoriozta daiteke:

- Ikasleen gehiengoak bertsolaritzarekiko interesa erakutsi duela eta “ia bai” edo “bai” erantzunean kokatu direla, esaldiekiko adostasuna adieraziz.
- Bertsolaritza klaseei dagokienez, ikasleen gehiengoak bertsolaritza klaseetara gustura joaten dela eta klase gehiago izatea gustatuko litzaikeela adierazi du.
- Ikasleen iradokizun ezberdinetan hezkuntza formaleko edukiak bertsolaritzarekin uztartzea eta hori aurrera eramanez gelako dinamika ezberdinak burutzea posible dela ikusten da.
- Ikasleen gehiengoak ez da bertso-eskolara joaten, baina hori ez da oztopo bertsotan gustura aritzeko eta bertsotan gai ezberdinak lantzeko gogoia izateko.
- Ikasleen gehiengoak gustura aritzen da bertsoak idatziz sortzen dituztenean eta gainera, onak direla diote, baina, bat-batekotasunaren bitartez bertsoak sortzerako garaian ez dira posizio bereberetan kokatzen.

### 6. Proposamena/iradokizunak

Sarri pentsatu izan da bertsolaritzak entretenimendu gisa erabiltzeko soilik balio duela, baina ez du zertan horrela izan eta ikerketa honen emaitzetan argi eta garbi ikusten da hori. Bertsoak gauza ezberdinetarako balio dezake baina gure gaian eta helburuan zentratuz, egokia litzateke bertsoa eta hezkuntza uztartzeko proposamen bat egitea ikasleen iradokizunetatik abiatuta.

Horretarako, ikasleen ekarpenak kontuan izanik bi proposamen ezberdin sortu dira Bertsolaritzaren Curriculum Lehen Hezkuntzan (Aizpurua *et al.*, 2008) kontuan harturik (ikusi

2. atala). Proposamenetako lehenengoa bosgarren mailara bideratuta dago (2. eranskina). Eki Proiektuarekin bosgarren mailan lantzen diren geometria formak hartu eta bakoitzarentzako bertso bat sortu da, guztira bost. Ondoren horiek kartetan islatu dira, ikasleekin erabiliz jarduera ezberdinak egin ahal izateko (9. irudia). Karta hauen bidez proposatzen dena, bosteko taldeak egin, batek bertsoa abestu eta gainontzekoek zein irudi geometrikori buruz hitz egiten duen asmatzea da. Era horretan, irudi geometriko ezberdinak ezagutu ahal izateko.

IRUDI GEOMETRIKOAK IKASTEKO BERTSO KARTAK	IRUDI GEOMETRIKOAK IKASTEKO BERTSO KARTAK	IRUDI GEOMETRIKOAK IKASTEKO BERTSO KARTAK	IRUDI GEOMETRIKOAK IKASTEKO BERTSO KARTAK	IRUDI GEOMETRIKOAK IKASTEKO BERTSO KARTAK
Hiru arpegi ditur Neuri bere hartzen Oinetan hirukiak Oinezak jarritzen Bederatzi ertz eta sei erpin marrazten Ea zer prisma naizen Nork duen asmatzen	Sei arpegi berdinak A ze arrarora Naiz hamabi ertz eta Zortzi erpinetara Asmatu ezik ni betu Esatera doa Izan naiteke kurba Edota dadoa	Bost paralelogramo Eta bi oin hartu Horiek pentagonoak Gisa ikuratu Hamabost ertz ta hamar Erpinak kokatu Hori dena jakinda Zer naizen asmatu	Sei paralelogramo Ditur badakizu Ta oinetan hexagono Forma dut jakizu Hamazortzi ertz ditur Guztiak berdintsu Horrenbeste piztekin Asmatu zuk aizu	Oin bakar bat daukat nik Baina forma pila Sorretzeko hasi zaitez Triangeluen bila Erraza da asmatzen Ta izan abila Egipto aldeetan Gaudelako mila
ERANTZUNA: Prisma hirukiara	ERANTZUNA: Kuboa	ERANTZUNA: Prisma pentagonala	ERANTZUNA: Prisma hexagonala	ERANTZUNA: Piramidea

9. irudia. Gorputz geometrikoak ikasteko bertso kartak

Jarraitzeko, seigarren mailarako luzatzen den proposamena ingurune irakasgaiarekin dago lotuta (3. eranskina). Kasu honetan helburua historiako garai ezberdinak ikastea izanik, Eki Proiektuan lantzen diren garaietara egokitu da eta garai bakoitzerako poster bat sortu da (10. irudia). Hasieran asmoa bertso sorta batean garai guztiak sartzea izan den arren, era honetan garai bakoitzeko xehetasun gehiago ematen dira eta banatuta landu daitezke, hau da, ez da zertan guztia batera landu ezta orden logiko bat jarraituz ere. Irakasle bakoitzak materiala bere irakaskuntza propiora moldatu dezake.

PALEOLITOA	NEOLITOA	EGIPTO	GREZIA	ERROMA
<ol style="list-style-type: none"> <li>Historiarekin Lehenengo arren Nahia eta bizi ziren Denak harriztan Etxatu eta jaxa Aurkitzerakoan Normak ziren denak Fabelosan</li> <li>Citakia sen handi Ela indartsua Nahia eta ez espero Aurkitu sen nua Basagailu sortzen Zien bark izua Bere eta argia Zelako laua</li> <li>Ekoiztetako Jareta marraztu Fruak harrak ta Landareak harr Harr eta bestaldun Auroak prestatu Gero saaren buztan Ohi ziren elkarri</li> <li>Etopoak zituzten Hortz ta hezurrekin Larruak ondu Atropak sortzeko Isotortzen barrian Yendiak sortzeko Horiek erabiltzen Zituzten josteko</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>Nahia eta bizi ziren Denak harriztan Etxatu eta jaxa Aurkitzerakoan Normak ziren denak Fabelosan</li> <li>Citakia sen handi Ela indartsua Nahia eta ez espero Aurkitu sen nua Basagailu sortzen Zien bark izua Bere eta argia Zelako laua</li> <li>Ekoiztetako Jareta marraztu Fruak harrak ta Landareak harr Harr eta bestaldun Auroak prestatu Gero saaren buztan Ohi ziren elkarri</li> <li>Etopoak zituzten Hortz ta hezurrekin Larruak ondu Atropak sortzeko Isotortzen barrian Yendiak sortzeko Horiek erabiltzen Zituzten josteko</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>Lehen zibilizazioa Egiptorain Murgidur ezagutu Egipto beretan Hieroglifoen Ta piktogrametan Irakurriak horma Ta papirusen</li> <li>Nilo ibaiak ziren Jakin baloitezen Lur emariztean Jaxa landatzen Geri eta garagor Ugeti batzen Merkataria sortu Zien bar: barba</li> <li>Gardi gorpuztutun Zien indartzen Ondoren esparto Anitzez ordaintzen Hiri jauregi tempu Ta etxeak sortzen Hasi ziren maquina Simpliak asmatzen</li> <li>Faraotak hil eta berrien gorpuzk Sarkofagoak sortu Mumifikatuak Nio aurkitu daitezken Gutako kotoiak Piramide barruan hildakitak</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>Ego ikasotik Jareta begira Dolok ta tempuak Dituen helia Greziara iritez Atena handira Olinpiak jokatu Hasi sortuak dira</li> <li>Jehotak bizi ziren Nokasuntziak Lehengatik aldatu Bi txanponengatik Platone garaituz Makina bar jaki Merkataria garatu Zien horregatik</li> <li>Fruak harrak harr Zien garaituta Filosofia zenez Garako ikerkita Aklarazteko Landatuz hazia Gara honetan sortu Zen demokratea</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>Erromatarren tropak Heldu zirenean Zanpehuan urte inguru Ta kristo aurrera Aurkitutak asmatzen Ela aldarren Gure onuri dira Gaur egunean</li> <li>Akudatutak ura kanalizatuko Sortu ziren herria Perfektionatzeko Temak eta barinak Bertan egiteko Hiri barriko ura Gutxi izateko</li> <li>Beste aurkitutak bot Zen errepidoak Legioentzako zen Buladider Merkataria erazatu Zituzten bidea Mugi ziteelaiko Hasi erazi jendak</li> </ol>

9. irudia. Gorputz geometrikoak ikasteko bertso kartak

## 7. Ondorioak

Lanaren emaitzei erreparatuz gero, agerikoa da zenbait ondorio atera daitezkeela horietatik. Lehenik eta behin, hipotesia ezeztatu dela aipatzekoa da. Izan ere, emaitzetan garbi ikusten da ikasleek bertsoarekin interesa erakusten dutela, bertsoarekin gustuko dutela eta gai ezberdinak bertso bidez lantzeko grina sentitzen dutela. Beraz, Egaña eta lankideek diotenaren arabera (2001), bertsoarekin entzuleria berri eta heterogeneo batentzako edukia

kantatzeko balio dezake eta kasu honetan argi ikusten da arlo horrekin loturarik ez dutenengan ere piztu daitekeelaugar hori.

Gainera, Rodriguezek dioen bezala (1991), bertso-eskolen helburua ez da bertsolariak sortzea, jendea mundu horretan murgiltzea baizik. Beraz, bertsolaritza ikastetxeetako edukiekin uztartzea aukera bikaina izan daiteke hori burutu ahal izateko. Hala ere, astean saio bat edo bi astetik behin saio bat izatea, ez al da denbora gutxi hori burutu eta bertsolaritzaarekiko interesa ikasleengan pizteko? Ikasleek beraien emaitzetan hala adierazi dute behintzat. Halaber, nahiz eta ikerketa hau testuinguru konkretu batean egin den, ikasleek egindako proposamen ezberdinak beste ikastetxe batzuetara ere lan daitezke.

Jarraitzeko, ikasleek bertsoak idatziz sortzerako orduan gustura sentitzen direla eta onak direla erantzun duten arren, bat-batean bertsoak sortzen dituztenean kontrakoa sentitzen dutela adierazten dute. Horrek, bi ondorio ezberdinetara garamatza. Lehenik eta behin gainontzekoen aurrean hitz egitera ohituta ez egoteak, unean bertan zerbait modu inprobisatuan sortzerako orduan arazoak izatea ekar dezake. Baina, bertso-eskolak sozializazio guneak izanik, horren konponbide gisa jardun dezakete (Alvarez-Uria, *et al.*, 2021). Beste ondorioa aldiz, metodologia horri buelta bat emateko beharra izango litzateke. Izan ere, lanaren marko teorikoan aipatu bezala (ikus 2. atala), “Gu ere bertsoan” egitasmoaren barruan nahiz eta idatzizko bertsolaritza tokia utzi, batez ere bat-batekotasunari ematen zaio garrantzia (Hik Hasi, 2012). Ondorioz, agian metodologia aldatu eta beste modu batera planteatzea ere aukera egokia izan daiteke.

Proposamenean zentratuz, bertsoarekin lotutako hamaika gauza ezberdin egin daitezkeela argi dago. Bertsolaritza curriculumaren arabera, bertsolaritza lantzearen helburua ez da soilik ondo pasatzea; bertsoak hausnartzeko, sormena lantzeko, bestelako adierazpenez gozatzeko... ere balio baitu (Aizpuru, *et al.*, 2008). Gainera, Aizpuruak eta lankideek curriculumean adierazten dutenaren arabera (2008), bertsoak mezuak ulertzeko, ondarea ezagutzeko, ingurune natural eta sozialeko gertaerak ulertzeko eta abarrerako balio du. Beraz, zergatik ez bertsolaritza hezkuntzako edukiekin uztartu? Zergatik ez bertsoan ikasi?

Lan honen emaitzetan ikus daitekeen bezala argi dago bertsoan ikasteko interesa testuinguru konkretu batean badagoela, beraz, horretaz baliatu eta bertsoan ikas daiteke. Gainera, ni neu naiz horren adibide, sarreran aipatu bezala (ikus 1. atala) teknika hau behin baino gehiagotan erabili baitut. Orain beste erronka bat geratzen da “Gu ere bertsoan” egitasmoa bestelako edukiekin nahastu eta metodologia berritzaile bat sortzea eta ikastetxe guztietan aplikatu daitekeen edo ez aztertzea. Hala ere, hori beste norbaitentzako erronka izango da.

## 8. Erreferentzia bibliografikoak

- Agirrezaldegi, A. (2002). Euskal Herriko bertso eskolak. *Bertsolari aldizkaria*, 48, 1-481. <http://www.bertsolari.eus/aldizkariak/euskal-herriko-bertso-eskolak/>
- Aizpurua, K., Altube, A., Arozena, E., Aurrekoetxea, I., Eizagirre, I., Estiballes, A., Gurrutxaga, I., Iturrioz, J., Landeta, J., Leitza, J., Lekue, E., Lotina, I., Ormaetxea, U., Perea, O., Salaberri, K., Sarasua, A., Urrea, N. & Zabala, J. (2008). *Bertsolaritza Curriculumum Lehen Hezkuntzan*. LANKU.
- Alvarez-Uria, A., Fernández, V. & Vizcarra, M. T. (2021). Poto berriro ez egiteko. Bertso-eskoletako emakume bertsolari-irakasleen ekarpen metodologikoa. *EGAN*, 74, 41-75. <https://www.rsbap.org/ojs/index.php/egan/article/download/4682/4385>
- Aulestia, G. (2020). Oralidad y bertsolarismo vasco. *Sancho el Sabio: revista de cultura e investigación vasca*, 3, 259-264. <https://revista.sanchoelsabio.eus/index.php/revista/article/view/276/203>
- Barandiaran, A. (2020). El campeonato de bertsolaris de Euskal Herria como institución canonizadora de las melodías, de los ejercicios y de las estrofas de bertsos. *Revista de Filología Hispánica*, 36 (4), 247-264. <https://revistas.unav.edu/index.php/rilce/article/view/39526/34965>
- Bertsozale elkarte. (d.g.). *Bertso-eskolak*. <https://www.bertsozale.eus/eu/araba/bertso-eskolak/#-span-mce-name--strong--mce-style--font-weight--bold---style--font-weight--bold---class--apple-style-span--zer-da-bertso-eskola-bat---span->
- Bertsozale elkarte. (d.g.). *Epaitzeko irizpideak*. <https://www.bertsozale.eus/eu/xiberoa-lapurdi-baxenabarre/xilaba/informazioa/epai-irizpideak>
- Bertsozale Elkarte. (d.g.). *Gu ere bertsotan*. <https://www.bertsozale.eus/eu/gipuzkoa/bertsolaritzaren-transmisioa/gu-ere-bertsotan>
- Bertsozale Elkarte. (d.g.). *Historia*. <https://www.bertsozale.eus/es/bertsolaritza/historia>
- Bertsozale Elkarte. (d.g.). *Zer da bertsoa?*. <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolaritza/sarrera-zer-da-bertsoa>
- Dorronsor, J. (2007). Bertso doinuen idazkera. *Musiker*, 15, 195-199. <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/PDFAnlt/musiker/15/15195199.pdf>
- Egaña, A., Garzia, J. & Sarasua, J. (2001). *Bat-bateko bertsolaritza*. Bertsolari liburuak. [https://bdb.bertsozale.eus/uploads/liburutegia/xdz5\\_ld\\_000716.pdf](https://bdb.bertsozale.eus/uploads/liburutegia/xdz5_ld_000716.pdf)
- Etxepare Euskal Institutua. (d.g.). *Bertsolaritza*. <https://www.etxepare.eus/eu/bertsolaritza>
- Euskaltzaindia. (d.g.). *Errima-literatura terminoen hiztegia*. [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_xslt&view=frontpage&layout=1th\\_detail&Itemid=474&search=errima](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&view=frontpage&layout=1th_detail&Itemid=474&search=errima)
- Hik hasi. (2012). Gu ere bertsotan. Eskolan bertsolaritza sustatzeko egitasmoa. *Hik hasi*. <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20120501/gu-ere-bertsotan-eskolan-bertsolaritza-sustatzeko-egitasmoa>
- Larrañaga, C. (1995). El bersolarismo: Una tradicion oral por el genero-sexo. *Vasconia. Cuadernos de historia-geografía*, 23, 405-425. <http://ojs.eusko-ikaskuntza.eus/index.php/vasconia/article/view/713/688>
- Martinez, J. (2005). Bertsolaritzaren historia berrogeiko txikian. *Bertsolari aldizkaria*, 58, 1-87. <https://www.bertsolari.eus/aldizkariak/bertsolaritzaren-historia/>
- Mendizabal, A. (2009). Berdabioaren bertso-doinuaren inguruan musika eta prosodia uztartuz. *Juan Mari Lekuonari Omenaldia*, 321-350. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/73437.pdf>
- Nazio Batuen Erakundea. (2015). *Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda*. NBE.
- Perez, P. (2009). La memoria de la Guerra Civil en los versos improbiados populares vascos. *Cuartas Jornadas Archivo y Memoria*, 1-15. [http://www.docutren.com/ArchivoyMemoria/ArchivoyMemoria2009/pdf/4J\\_Comunicacion\\_08\\_P%C3%ADo%20L%C3%B3pez%20Aldasoro\\_web.pdf](http://www.docutren.com/ArchivoyMemoria/ArchivoyMemoria2009/pdf/4J_Comunicacion_08_P%C3%ADo%20L%C3%B3pez%20Aldasoro_web.pdf)
- Rodriguez, F. (1991). *Bertsolaritza eta eskola*. UEU.

## **9. Etika profesionala**

Ikerketa hau aurrera eramateko orduan ezinbestekoa izan da datuen babes eta etika profesionala kontuan hartzea. Beraz, lehenik eta behin, galdetegia pasatu aurretik ikastetxeari mezu bat helarazi zitzaion jasotako datuen erabilera zein izango zen eta pribatutasuna eta anonimotasuna uneoro errespetatuko zirela azalduz Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat egiteko (1. eranskina). Ondorioz, lanean zehar ez da ikastetxearen ezta herriaren izenik aipatzen. Gainera, galdetegiaren helburua eta erabiliko zen metodologia zeintzuk izan ziren ere argitzen ziren gutun horretan eta hori sinatuz ikastetxeak ikasleei galdetegia pasatzeko baimena aitortu zuen.